


Euskal AEko BPG % 2,1 igo da 2025eko lehen hiruhilekoan, eta enplegua % 1,5

Aurreko urteko laugarren hiruhilekoaren aldean, BPGak % 0,7 egin du gora eta enpleguak % 0,4

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko Barne Produktu Gordinak (BPG), hiruhileko artean, % 0,7 egin du gora 2025eko lehen hiruhilekoan eta, beraz, urte artean % 2,1eko hazkundera izan du. Enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokide gisa neurtuta, hiruhileko honetan % 0,4 igo da 2024ko laugarren hiruhilekoaren aldean; horrek esan nahi du urte artean % 1,5eko hazkundera izan dela eta 2024ko lehen hiruhilekoan baino 14.838 lanpostu garbi gehiago.



Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontu ekonomikoak

Estimazio horiek Eustaten apirilaren 16ko *Hiruhileroko Kontuen Aurrerapenean* adierazitako BPGaren estimazioa hamarren batean hobetzen dute, bai hiruhilekoen arteko hazkunderari dagokionez, bai urtetik urterako hazkunderari dagokionez. Enpleguari dagokionez, ordea, aurrerapen hori egiteko unean eskuragarri zegoen koiunturazko informazioetik abiatuta lortutako estimazioak berresten dira.

2025eko lehen hiruhilekoan estimatutako Euskal AEko BPGren urte arteko hazkundera (% 2,1), Estatu Batuetako ekonomiarako estimatutakoaren magnitude berekoa, Euroguneko ekonomiarako (% 1,2) eta Europar Batasun osorako (% 1,4) egindako azken estimazioen gainetik dago. Bestalde, apirilaren 29ko *Espainiako Hiruhileko Kontabilitate Nazionalaren Aurrerapenak*, Estatu osoan % 2,8ko urte arteko hazkundera estimatu zuen.

Eskaintzaren ikuspegitik, balio erantsiaren bilakaera positiboa izan da urte artean (2025eko lehen hiruhilekoa, 2024ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta) sektore ekonomiko guztietan, lehen sektorean izan ezik.

BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE (%). 2025/I

	2023	2024	2024				2025
			I	II	III	IV	I
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	16,0	3,1	6,5	2,8	1,0	2,2	-1,0
Industria eta energia	1,8	1,0	1,7	1,0	0,8	0,5	0,7
Manufaktura-industria	0,2	0,6	0,8	0,9	0,6	0,1	0,3
Eraikuntza	2,6	1,6	2,2	1,0	0,9	2,2	1,6
Zerbitzuak	3,0	2,6	2,6	2,5	2,5	2,7	2,6
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	1,1	1,8	1,2	1,4	2,0	2,6	2,9
Herri administrazioa, hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak	0,9	2,9	3,0	3,1	3,1	2,4	2,0
-Gainerako zerbitzuak	5,4	2,9	3,3	2,8	2,5	2,9	2,7
Balio erantsi gordina oinarritzko prezioetan	2,8	2,1	2,4	2,1	2,0	2,1	2,1
-Produktuen gaineko zerga garbiak	1,7	2,3	2,3	2,3	2,2	2,2	2,3
BarneProduktu Gordina merkatu-prezioetan	2,7	2,2	2,4	2,1	2,0	2,1	2,1

Urtaroen eta egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Data 2025eko Ekainaren 6a

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontu ekonomikoak

Izan ere, **Lehen** sektorean balio erantsia aurreko urteko hiruhileko beraren aldean % 1,0 jaitsi da balio errealetan, eta % 1,9 aurreko hiruhilekoaren aldean.

Industriaren sektorean, balio erantsia, urte artean % 0,7 igo da, eta manufaktura-industriari dagokio % 0,3ko hazkundera. 2024ko azken hiruhilekoaren aldean, Industria, oro har, % 0,3 hazi da, eta manufaktura-industria, % 0,2.

Eraikuntzaren sektoreak balio erantsiaren urte arteko % 1,6ko igoera izan du 2025eko lehen hiruhilekoan, balio errealetan, aurreko hiruhilekoaren aldean % 0,2ko igoera izan ondoren.

Zerbitzuen sektoreko jarduera osoa % 2,6 hazi da 2024ko hiruhileko beraren aldean; horrek esan nahi du balio erantsia % 0,9 igo dela aurreko hiruhilekoaren aldean.

Zerbitzuek portaera positiboa izan dute azken hiruhileko honetan bereizitako hiru arloetan. **Merkataritza, ostalaritza eta garraioaren** arloan balio erantsia % 2,9 igo da aurreko urteko lehen hiruhilekoaren aldean, aurreko hiruhilekoaren aldean % 1,2 hazi ondoren. Urte arteko hazkundera handia izan da, halaber, **Gainerako zerbitzuen** arloan – higiezin arloko jarduerak, jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak, bai eta finantza- eta aseguru-jarduerak ere –, urte artean % 2,7ko hazkunde-tasarekin; aurreko hiruhilekoaren aldean, hazkundera % 0,7koa izan da.

Herri administrazioaren, hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen arloan, aurreko hiruhilekoaren aldean % 0,9 igo ondoren, balio erantsiaren hazkundea% 2,0koa izan da 2024ko lehen hiruhilekoaren aldean.

BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE (%). 2025/I

	2024				2025
	I	II	III	IV	I
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	1,2	0,7	0,0	0,4	-1,9
Industria eta energia	0,0	-0,3	0,5	0,3	0,3
Manufaktura-industria	0,1	-0,5	0,4	0,3	0,2
Eraikuntza	0,9	-0,7	0,4	1,6	0,2
Zerbitzuak	1,0	0,7	0,4	0,6	0,9
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	0,9	0,4	0,6	0,7	1,2
Herri administrazioa, hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak	1,3	0,5	0,3	0,2	0,9
-Gainerako zerbitzuak	0,8	0,9	0,4	0,7	0,7
Balio erantsi gordina oinarritzko prezioetan	0,8	0,4	0,4	0,6	0,7
-Produktuen gaineko zerga garbiak	0,5	0,7	0,6	0,4	0,5
BarneProduktu Gordina merkatu-prezioetan	0,7	0,4	0,5	0,6	0,7

Urtaroen eta egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Data 2025eko Ekainaren 6a

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontu ekonomikoak

Sektore-agregatuen urte arteko portaeraren ondorioz, Euskal AEko **Balio erantsia** % 2,1 igo da 2025eko lehen hiruhilekoan, hau da, aurreko hiruhilekoan baino % 0,7 gehiago.

Eskariaren aldetik ere, orokorrak izan dira igoerak. Familien eta EZMAEDEen azken kontsumo gastuak (**Kontsumo pribatua**) urte arteko % 2,6ko igoera izan du, aurreko hiruhilekoaren aldean % 0,6 igo ondoren.

Herri Administrazioen azken kontsumo gastua (**Kontsumo publikoa**) % 2,0 igo da 2024ko lehen hiruhilekoaren aldean, eta aurreko hiruhilekorako aurreikusitakoa baino % 0,7 handiagoa da.

BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE (%). 2025/I

	2023	2024	2024				2025
			I	II	III	IV	I
Gastua azken kontsumoan	1,7	2,4	2,2	2,3	2,4	2,5	2,4
Familien eta EZMAEDE-en azken kontsumo gastua	1,9	2,4	2,1	2,3	2,4	2,5	2,6
Herri administrazioen azken kontsumo gastua	1,3	2,3	2,4	2,3	2,3	2,3	2,0
Kapitalaren osaketa gordina	1,8	2,1	2,3	1,7	2,0	2,3	2,2
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	3,1	2,3	2,6	1,8	2,2	2,6	3,0
Gainerako Kapitalaren Eraketa Gordina	1,0	1,9	2,1	1,6	1,9	2,1	1,7
Barne-eskaria	1,8	2,3	2,2	2,2	2,3	2,4	2,4
Ondasunen eta zerbitzuen esportazioak	1,0	0,1	-3,4	2,1	2,0	-0,3	1,7
Ondasunen eta zerbitzuen inportazioak	-0,2	0,3	-3,5	2,2	2,4	0,2	2,1
BarneProduktu Gordina merkatu-prezioetan	2,7	2,2	2,4	2,1	2,0	2,1	2,1

Urtaroen eta egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Data 2025eko Ekainaren 6a

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontu ekonomikoak

Kontsumo publikoak eta pribatuak batera izandako bilakaerak **Azken kontsumoko gastuaren** urte arteko % 2,4ko igoera ekarri du eta, 2024ko laugarren hiruhilekoaren aldean, % 0,6ko hazkundea.

Kapitalaren osaketa gordinean (Inbertsioa), urte arteko hedapena % 2,2koa izan da, aurreko hiruhilekoaren aldean % 0,8ko igoera izan ondoren. **Ekipo-ondasunetan** egindako inbertsioa % 3,0 igo da aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, hau da, hiruhileko artean % 0,6 igo da.

Gainerako kapitalaren eraketa gordinean, eraikuntzaren bilakaerari lotuago dagoena, urte arteko hazkundea % 1,7koa izan da, aurreko hiruhilekoaren aldean % 0,9 igo dela estimatu ondoren.

Barne-eskariak (azken kontsumoko gastua eta kapitalaren osaketa gordina) % 2,4ko urte arteko hazkundea izan du urteko lehenengo hiruhilekoan. Hazkunde hori BPG osorako estimatutakoaren gaineratik dago (% 2,1); beraz, **Kanpo-sektorearen** ekarpena negatiboa izan da urteko lehen hiruhilekoan. Izan ere, ondasun eta zerbitzuen **Esportazioak** % 1,7 igo dira urte artean, **Inportazioak** baino modu apalagoan, azken hauek aurreko urteko lehen hiruhilekoan izandakoak baino % 2,1 handiagoak izan baitira. 2025eko lehen hiruhilekoan, **Kanpo-saldoak**, beraz, eragin negatiboa izan du Euskal AEko ekonomia osoaren urte arteko bilakaeran.

BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE (%). 2025/I

	2024				2025
	I	II	III	IV	I
Gastua azken kontsumoan	0,7	0,5	0,4	0,8	0,6
Familien eta EZMAEDE-en azken kontsumo gastua	0,6	0,5	0,5	0,9	0,6
Herri administrazioen azken kontsumo gastua	1,0	0,4	0,3	0,5	0,7
Kapitalaren osaketa gordina	0,9	-0,1	0,5	1,0	0,8
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	0,3	0,6	0,7	1,0	0,6
Gainerako Kapitalaren Eraketa Gordina	1,3	-0,5	0,3	1,0	0,9
Ondasunen eta zerbitzuen esportazioak	-1,3	5,1	-0,5	-3,3	0,6
Ondasunen eta zerbitzuen inportazioak	-1,3	5,0	-0,5	-2,9	0,6
BarneProduktu Gordina merkatu-prezioetan	0,7	0,4	0,5	0,6	0,7

Urtaroen eta egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Data 2025eko Ekainaren 6a

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontu ekonomikoak

Enpleguari dagokienez (**lanaldi osoko lanpostu baliokideetan** neurtuta), enplegu osoa % 1,5 hazi da 2024ko lehen hiruhilekoaren aldean, aurreko hiruhilekoaren aldean % 0,4 igo ondoren.

Lehen sektorean, enplegua % 0,4 jaitsi da 2024ko lehen hiruhilekoaren aldean eta % 0,3 hiruhileko artean. Industrian, urte arteko lanpostuen sorrera % 0,6koa izan da, hau da, aurreko hiruhilekoan baino % 0,2 handiagoa. Eraikuntzan ere enpleguaren bilakaera positiboa izan da, bai urte artean (% 1,1eko igoera), bai hiruhileko artean (% 0,4ko igoera). Azkenik, Zerbitzuen sektorean, lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua % 1,8 igo da urte artean, hiruhileko artean % 0,4 igo ondoren.

BPGren lurralde historikoen arabera bilakaerari dagokionez, 2025eko lehen hiruhilekoan, Arabak urte arteko % 1,9ko hazkundera izan du, Bizkaiak % 2,1ekoa eta Gipuzkoak % 2,2koa. Aurreko hiruhilekoaren aldean, hazkundera % 0,6koa izan da Bizkaian, % 0,8koa Araban eta % 0,9koa Gipuzkoan.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62